

ZER DA UDALETXEAN?

Udaletxean herritarrentzako karpeta bat da. Honen bitartez, tramiteak egin ahal izango dituzu Leioako Udalarekin, urteko 365 egunetan, eguneko 24 orduetan, eta etxetik bertatik. Udalaren webgunera sartuz (www.leioa.eu), tramite ugari egin ahal izango dituzu, Udaletxera joan beharrik gabe.

ZEIN TRAMITE EGIN DAITEZKE?

Udaletxean ekimenaren bidez, hainbat udal tramite egin ditzakezu, eta arrerantzean gehiago egiteko aukera egongo da, on-line erako Udal osoa lortu arte.

Udaletxean ekimenak aukera ugari eskaintzen dizkizu. Besteak beste, honakoak egin ahal izango dituzu:

- Errolda-paper individual edo kolektiboa **JAITSI**.
- Ordainagiriak edo helbide fiskaleko aldaketak **ESKATU**.
- Ordainketa-gunera **ZUZENEAN SARTU** ahal izango zara.

NOLA SARTU UDALETXEAN EKIMENERA?

Herritarrentzako karpetara sartu ahal izateko, ziurtagiri elektronikoa behar duzu; hau da: NAN elektronikoa, ONA txartela edo IZENPE ziurtagiria.

Oraindik ziurtagiri elektronikorik ez baduzu eta udalerrian erroldatuta bazaude, PIN bat eskatu dezakezu, eta, horrekin, on-line erako tramite gehienak egin ahal izango dituzu.

NOLA LORTU PINa?

PINa on-line eskatu behar duzu, Udaletxean ekimenaren atalera sartuz, Udalaren webgunearen barruan. Eskatu ostean, Udaletxera joan beharko duzu, eta, NANA aurkeztuta, zure PIN pertsonala jasoko duzu. Ezin baduzu Udaletxera joan, baimena eman ahal izango diozu konfiantzazko norbaiti, zure PINa jaso dezan. Horretarako, webgunean aurkituko duzun baimena bete eta sinatu beharko duzu, besterik ez.

www.leioa.eu



**UDALETXEAN EKIMENARI ESKER, HAINBAT KUDEAKETA
EGIN AHAL IZANGO DITUZU UDALAREKIN,
ETXETIK IRTEN GABE**



UDALA ZURE ETXEAN



**HERRITARRENTZAKO KARPETA, ZURE
UDALAREKIN TRAMITEAK EGIN AHAL IZATEKO,
ETXETIK ETA EDOZEIN UNETAN**

www.leioa.eu

